

BIRZIKLAPENEAN JAIKAK GARA



HOBETO
EGINGO
DUGU


Lankidetzaren indarra

Euskadi, napolasa, bien comiso


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTU DE SERBIZU ARABATU
PLATEFORMA DE SERBIZU ARABATU

RECICLAR ES LO NUESTRO



VAMOS
A HACERLO
MEJOR


El poder de la colaboración

Euskadi, napolasa, bien comiso


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTU DE SERBIZU ARABATU
PLATEFORMA DE SERBIZU ARABATU

PRENTSA TXOSTENA DOSSIER DE PRENSA

Fitxa teknikoa

‘Birziklapenean jaioak gara’ Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza Sailaren eta Ecoembesen kanpaina bat da, bi erakundeek ontzi erabilien eta ontzien Sistema integratuen alorrean duten hitzarmenaren baitan antolatua. Bere helburua da herritarrei azaltzea zer onura dituzten ekonomia zirkularrak eta hondakinen murrizketa eta birziklapenak.

Egunak: irailaren 29tik urriaren 30era arte.

Edukia: Hedabideen plana, Euskal Autonomia Erkidego osora iristeko, eta kaleko ekintzak hiru lurralde historikoetako bost herritan: Portugalete, Amurrio, Zarautz, Durango eta Eibar.

Bost pertsonaz osatutako talde bat informazioa emateaz eta kaleko ekintzak dinamizatzeaz arduratuko da, eta aukeratutako herrietako biztanleei azalduko die zein diren Euskadik birziklapenaren alorrean dituen helburuak eta nola lortu daitezkeen.

Informazio-gune finkora gerturatzeko diren pertsonen kanpainaren edukia azaltzen duen liburuxka bat jasoko dute, eta hainbat proposamenetan parte hartu ahal izango dute: erakusketa motakoak, elkarreragileak eta ludikoak; eta opari bat eskuratu ahal izango dute. Halaber, inguruneke kaleak zeharkatuko dira bizikleta elektriko batean, kanpainaren irudiarekin, herritarrak erakusmahaia bisitatzera animatzeko eta liburuxkak banatzeko.

Jarduerak era guztietako publikoarengana daude zuzenduta, eta ostiraletan Agenda 21en parte hartzen duten ikastetxeen bitarteko hartuko dira.

Herria	Egunak	Lekua	Orduetgia
Portugalete	Irailaren 29 eta 30a Urriaren 1a	La Canilla plaza	11:00 – 15:00 16:30 – 19:30
Amurrio	Urriaren 6a eta 7a	Udaletxeko plaza	11:00 – 15:00 16:30 – 19:30
Zarautz	Urriaren 12, 13 eta 14a	Munoa	11:00 – 15:00 16:30 – 19:30
Durango	Urriaren 20 eta 21a	Ezkurdi plaza	11:00 – 15:00 16:30 - 19:30
Eibar	Urriaren 27 eta 29a	Unzaga plaza	11:00 – 15:00 16:30 - 19:30

Kanpaina

Kanpainaren kaleko ekintzek erakusketa-gune bat, gune ludiko bat eta kanpo-jarduera bat hartuko dituzte euskarritzat. Horiek guztiek oso izaera parte-hartzailea izango dute, eta batukada batez bukatuko dute.

Erakusketa-gunea

Gune honetan, informazio-panel ulergarri eta oso grafikoekin bitartez, Euskadiko hondakinen planaren helburuak azalduko dira, herritarrek horien lorpenean jokatu behar duten rolaz kontzientziatuko da, eta gomendio erabilgarriak emango dira ekonomia zirkularraren funtsezko kontzeptuen inguruan: murriztu, birziklatu eta berrerabili.

Gainera, tresna digitalak egongo dira eskura, Ecoembesek gai hauei buruz duen informazioa ikusteko:

- Ondo birziklatzeko modua
Modu zuzen eta errazean birziklatzeko aholkuak, gomendioak eta horri buruzko datu bitxiak. Jakiteko zer birziklatu dezakegun, eta birziklapenaren mitoak eta onurak ezagutzeko.
- Nola birziklatzen da
Nola funtzionatzen du birziklapen-prozesuak eta zer gertatzen da gure ontzietan edukiontzi egokira botatzen ditugunean.
- Ecoembes Barometroa
Birziklapenari eta nazio mailako bilketari buruzko datuen mapa; xehetasunak autonomia erkidegoen eta herrien arabera.
- *Reziklatesta*
Test elkarreragilea, aukeran 3 erantzun dituzten 15 galderarekin, kanpainarako bereziki diseinatuta.

Birziklatu

Euskadiren 2020rako helburua da sortzen ditugun hondakin guztien % 75 birziklatzea, edo, bestela esanda, erabiltzen ditugun 5 hondakinetatik 4 hondakin edukiontzi egokira botatzea.

Hori egiteak zuzeneko onurak ditu, hala nola enplegua sortzea edo arnasten dugun aire hobetzea.

- Onura ekonomikoak:
Hondakinak murriztu, birziklatu eta berriz erabiltzen baditugu, baliabide bihurtzeko, 600.000 miloi euro aurreztu ditzakegu Europan, bost urtean, EBren ekonomia zirkularrerako planaren arabera (2015).


Hondakinen kudeaketa eta tratamenduaren sektoreak 5.700 pertsonari ematen die lana urtean Euskadin.

- Osasun eta ingurumenerako onurak:
Edukiontzi horian birziklatzen diren 6 lata bakoitzeko, ibilgailuen ihes-hodi baten 10 minutu konpentsatzen dira.

Lata bat material birziklatuz fabrikatzeak, hutsetik hasi beharrean, % 95eko energia aurrezpena lortzen du.

Murriztu

Euskadiren 2020rako helburua da sortzen ditugun hondakinen % 10 murriztea. Gaur egun, miloi bat tona hondakin baino gehiago sortzen dugu urtean (Bilboko Iberdrola Dorrearen bolumenaren hirukoitza); horietatik, herritar bakoitzari tona erdia dagokigu urtean, edo 1,5 kilogramo egunean.



Berrerabili

Berrerabiltzea funtsezko kontzeptu bat da ekonomia zirkularrerako. Ontziek bigarren aukera bat izan dezakete, eta horretarako beharrezkoa da aurretik birziklatzea.

Erakusmahaiak pet botila, kontserba-lata edo birziklatutako beste ontzi batzuetatik abiatuta egindako objektuak erakutsiko ditu, ondo birziklatuz gero zer lortu daitekeen erakusten duten adibideekin batera:

8x	caja de cereales	=	1	libro liburu	80x	lata de bebida	=	1	llanta de bicicleta bizikleta-hagun
5x	lata de aluminio	=	1	aerosol aerosol	550x	lata de aluminio	=	1	silla soki
40x	botellas de plástico	=	1	ferro polar jantzi polar	6x	brik	=	1	caja de zapatos zapata-kaxa

Ekonomia zirkularra

Ekonomia linealetik ekonomia zirkularrera pasatzeko urratsak, hau da, **hondakinak baliabide bihurtzeko:**

- Ekoizpena
 - Ekodiseinua lehenestea
 - Jakiten saiatzea ea erosten duguna modu arduratsu eta jasangarrian fabrikatu ote den
- Kontsumoa
 - Modu arduratsuan kontsumitzea
 - Ez erostea gehiegizko bilgarriak dituzten produktuak
- Birziklapena
 - Hondakinak etxean gaika bereiztea
 - Hondakin mota bakoitza dagokion edukiontzira botatzea

Gune ludikoa

Gune honetan, birziklatzen ez duten –edo txarto edo gutxitan egiten duten– pertsonen ohiko aitzakiak erakusten dira, eta euren aitzakiez hausnartzera animatzen dira parte-hartzaileak. Horrekin batera, euren kasuari ondoen egokitzen zaizkien irtenbideak aurkitzen laguntzen zaie, askotariko proposamenen artean, gehiago eta hobeto birziklatzeari begira.

Kanpo-jarduera

Aurreko proposamenak bukatuta daudenean, ekintza hiru jarduera ludikoz amaituko da, erakusmahaiaren kanpoaldean:

- Nire konpromisoak
Photocall: bertan, atrezzo txiki batez, parte hartzen duten pertsonak argazki bat egin dezakete gehiago eta hobeto birziklatzeko hartutako konpromisoarekin.
- Gurea birziklatzea da
Panel batean, parte-hartzaileek argazkiak egin ditzakete kanpainako pertsonaia bat izango balira bezala.
- Batukada
Gutxi gorabehera ordu erdiro, kanpainaren abestia entzungo da, jingle gogoraeraz bat (*'Gurea birziklatzea da, ta zurea ere bai'*), eta dinamizazio berezi bat egingo da, plazan dauden pertsona guztiak parte hartzera animatuz. Ontziz egindako perkusio-instrumentu birziklatuak banatuko dira, kanpainaren abestia eta koreografia interpretatu dezaten.

Ikastetxeentzako bisita gidatuak

Ostiralero, bisita gidatuak programatuko dira ikastetxeentzat. Lehen Hezkuntzako azken mailetakoko eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat pentsatuta, orubete inguruko iraupena izango dute eta euskaraz egingo dira.